



d.bus

c de c
club de creativos



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

1. LEHIAKETA

2018ko apirilaren 12tik 14ra bitartean sortzaileen kongresu bat egingo da Donostian, *C de C*-k antolatuta, eta lehiaketa hau kongresu horren barruko jardueretako bat da.

Autobusa hirian inpaktu bisual handia duen euskarria da, etengabe presente dagoelako eta duen mugikortasunagatik. Berezitasun eta sormenerako aukera asko dituen bitartekoa ere bada. Lehiaketa

2. HELBURUAK

Dbusek, Donostiako autobus publikoen zerbitzuaren enpresa operadoreak, eta *Club de Recreativos* erakundeak ekimen hau antolatu dute, elkarlanean, Euskal Herrian bizi eta sormenaren eta diseinuaren sektorean diharduten ikasle eta profesionalen lana balioesteko eta autobusaren erabilera bultzatzeko, inpaktu bisual handia duen publizitaterako euskarri berezia den heinean.

3. PARTE HARTZAILEAK

Diseinu, komunikazio, publizitate eta marketinaren alorreko pertsoneri zuzenduta dago lehiaketa. Zehazki, pertsona hauek parte hartu ahal izango dute:

- Marketin, publizitate eta diseinuaren sektoreko profesionalak.
- Diseinuarekin eta sormenarekin lotura duten ikasketak egiten ari diren ikasleak.

4. GAIA

Briefinga 2017ko abenduaren 4ean argitaratuko da, *Club de Creativos* erakundearen web orrian (www.clubdecreativos.com) eta Dbusen web orrian (www.dbus.eus). Izena eman duten pertsonak briefinga posta elektronikoko bidez jasoko dute, aurretiko izen-ematean beraiek emandako posta elektronikoa, hain zuzen.

5. LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

5.1 ALDERDI OROKORRAK

Deialdi hau 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztientzat irekita dago; parte hartu nahi duenak bere nortasuna eta eskatzen den gutxieneko adina duela egiaztatu behar du, bai eta oinarri hauetako baldintzak betetzen dituela ere. Parte hartzaileek diseinuari eta sormenari lotutako ikasketak dituztela egiaztatu beharko dute, edota marketin, publizitate eta diseinuaren eremuan lan egin dutela.

Bakarka edo taldeka parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Pertsona bat izendatu beharko dute lanaren arduradun, eta pertsona hori izango da, halaber, deialdi honen antolaketarako harremanetarako pertsona. Dena dela, bakarka edo taldeka izena eman duten pertsona guztiek oinarriak onartu beharko dituzte eta ezarritako baldintzak bete. (gehienez 3 pertsona taldeko)



d.bus

c de c
club de creativos



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Dena dela, lehiaketa eta saria obrarako izango da, alde batera utzita obra lantzen ari diren pertsonen kopurua.

5.2. LANEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- AAFEn entrega
- Bere tamaina osoan (%100), CMYK, 96ppp. Goreneko kalitatea.
- Koskarik gabe, ebaketa markarik gabe eta txantiloia txertatu gabe.
- Formatu handiko inprimaketa da, ez du ez koskarik ez ebaketa markarik behar. Txertatu txantiloiak, busen neurriak, etab.
- OHARRA: ibilgailuen neurriak jasotzen dituzten txantiloiak briefaren batera entregatuko zaizkie izena eman duten pertsoneri.

5.3. AURREINSKRIPZIOA

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten pertsonak 2017ko azaroaren 21etik abenduaren 1era bitartean egin ahal izango dute aurreinskripzioa *Club de Creativos* erakundaren web orriaren bitartez (www.clubdecreativos.com), horretarako prestatuko den formularioa erabiliz.

Aurreinskripzioan emandako parte hartzeko kodea duten pertsonak edo taldeek baino ezingo dute parte hartu. Parte hartzeko kodeak 2017ko abenduaren 4ean bidaliko dira.

5.4. LANEN ENTREGA

Lanak 2017ko abenduaren 4tik 2018ko urtarrilaren 30era arte entregatu ahal izango dira.

Materiala **pakete bakarrean** entregatu beharko da, eta paketean hau sartu beharko da:

- Izena emateko dokumentua beteta; parte hartzeko kodea ere sartuko da.
- Parte hartzaile(ar)en NANaren fotokopia.
- AFa, formatu digitalean, USBan
- AFa, formatu fisikoan, inprimatuta (A3 neurria)

Gutun-azal nagusiaren kanpoaldean kontzeptu hau adierazi beharko da:

“c de c: Sortzaileen Lehiaketa”

Norentzat: Marketin eta Komunikazio Departamentua.

Entregarako helbidea:

Dbus

Fernando Sasiain 7

20015 Donostia

Entregaren ziurtagiria emango da, zigilatuta.

5.5. EPAIMAHAIA ETA LAN IRABAZLEEN HAUTAKETA SISTEMA

1.Fasea: lan finalistak 2018ko Nazio Mailako Sormen Sariaren epaimahaikideek aukeratuko dituzte bere botoen bitartez. Lanen hautaketari buruzko informazioa apirilaren 4an argitaratuko da, Dbusen web orrian (www.dbus.eus), C de C erakundearen web orrian (<http://www.clubdecreativos.com/diascdec/>) eta Donostiako Udalaren web orrian.

2.Fasea: deialdia egin dutenek izendatutako epimahari batek hautatuko ditu kategorია bakoitzeko irabazleak. Izena emateko orrian ezarriko den kanalaren bitartez jakinaraziko zaie irabazleei.

3.Fasea: lan irabazleak, kategoría bakoitzetik bat, bi autobusetan jarriko dira. Autobus horiek Dbuseko hainbat lineatan ibiliko dira, Sortzaileen Kongresuaren aurretik, zeina 2018ko apirilaren 12tik 14ra bitartean egingo baita.

5.6 SARIAK

PROFESIONALEN kategoriako irabazleek 1.500€-ko saria eskuratuko dute, bai eta bere lana 2 hilabetez Dbuseko autobus batean erakusgai jartzeko aukera ere.

IKASLEEN kategoriako irabazleek 1.000€-ko saria eskuratuko dute, bai eta bere lana 2 hilabetez Dbuseko autobus batean erakusgai jartzeko aukera ere.

Antolatzaileek kategoría batean zein bestean saria eman gabe uzteko eskubidea dute, baldin eta uste badute aurkeztutako lanen kalitatea nahikoa ez dela.

5.7. SARIAK ENTREGATZEA

Sariak Sortzaileen Kongresuaren azken egunean entregatuko dira, Kursaal Jauregian, antolatzaileek ezarritako ordu eta lekuan.

Pertsona edo talde irabazleei eguna, ordua eta lekua behar bezala jakinaraziko zaizkie, definitutako bideen bitartez.

5.8. IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATU PERTSONALEN BABESA

- Irabazle ateratzen ez diren parte hartzaileak

Lehiaketan irabazle ateratzen ez diren parte hartzaileek, dagokien egile eskubide morala ez ezik, Oinarri hauen xede diren lehiaketan edozein euskarritan aurkezten dituzten dokumentu eta elementu materialei dagozkien Jabego Intelektualaren ondare eskubide guztien titulartasuna edukiko dute (baita material grafikoen Jabego Intelektualarenak ere).

Aurrekoa gorabehera, parte hartzaile batek 5.4 Klausulan azaldutako baldintzetan lehiaketaren lehen fasea gainditu bai baina lehiaketaren irabazle ateratzen ez bada, automatikoki ulertuko da Oinarri hauen xede diren lehiaketan edozein euskarritan aurkezten dituzten dokumentu eta elementu materialei (baita material grafikoei ere) dagozkien ustiapen lizentzia biak automatikoki ematen zaizkiela COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U. -ri eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundeari, haiek irauten duten denbora guztirako eta COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U.-k eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundeak, bakoitzak bere aldetik, etorkizunean beren jardueraren barruan hedapen kanpainarik garatzen baduten bertan erabili ahal izateko.

- Parte hartzaile irabazleak

Lehiaketan irabazle ateratzen diren parte hartzaileek COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U.-ri eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundeari lagako dizkiote, izaera eskusiboan, eta beren iraupenaldi osorako eta munduko lurralde eremu osorako, lehiaketan edozein euskarritan aurkezten dituzten dokumentu eta elementu materialak (baita material grafikoak ere) erabiltzeko eta ustiatzeko (osorik edo zati batean erreproduzitzea, banatzea edo jendearen aurrean jartzea) eskubideak eta, orokorrean, dokumentu eta elementu horien guztiei dagokien Jabego Intelektualaren ondare eskubideak ere bai. Horrela, lagapen hori kontuan harturik, COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U. eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundea izango dira elementu horiei dagokien egozein ustiapen eskubideren titular bakarrak eta eskusiboak, biak titularkideak izanik, eta biek ustiatu ahal izango dituzte elementu horiek, bakoitzak bere aldetik eta bakoitzak nahi duen eran.

Aurretik esandako guztia ulertuko da parte hartzaile irabazleari/irabazleei egokitu ahal zaizkion/zaizkien egile eskubide moralen kaltetan gabe, eta eskubide horiek behar bezala errespetatu beharko dituzte bai COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U.-k bai CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundeak ere.

Ulertuko da Saria dela aurretik aipatutako lagapenaren ordaina; beraz, parte hartzaile irabazleek ez dute aparteko diru kopururik eskuratzeko eskubidea izango.

- Erantzukizuna

Parte hartzaile guztiek bermatu beharko dute lehiaketan aurkeztu dituzten lanak eta haien barruko material guztiak jatorrizkoak direla eta ez dutela hirugarrenen Jabego Intelektualaren eskubiderik urratzen.

Era berean, parte hartzaileek bermatuko dute COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U.-ri eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundeari egindako lagapena, hau da, aurretik aurreikusitako erabilera eta ustiapen eskubideen lagapenak, ez duela eskubide horien titularra behartzen duen lege edo kontratu xedapenik hausten, ez eta hirugarrenen edozein eskubide urratzen ere.

Dena dela, parte hartzaile bakoitzak erantzungo du COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U.-ren eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundearen aurrean, berak aurkeztutako lanari eta lan horretako material guztiei lotuta Jabego Intelektualaren gainean hirugarren batek erreklamaziorik aurkezten badu, eta kasu horretan, beraz, COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.U. – DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.U.-ri eta CLUB DE CREATIVOS DE ESPAÑA erakundeari kontzeptu horien gainean behin-behinean aurkeztutako erreklamazioen ondorioz sortu daitezkeen kalte eta galerak ordaindu beharko dizkie.

5.9. OHARRAK

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du parte hartzaileak oinarri hauek onartzen dituela eta epaimahaiak hartutako erabakiekin ados dagoela, apelaezinak izango baitira.

Antolatzaileen esku egongo da erregelamendu honetan jasota ez dauden intzidentzien ebazpena.